


**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua  
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado  
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

**2016**





<b>LABURDURAK .....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>8</b>
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
II.2 OSATEK, SA.....	9
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	9
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....</b>	<b>10</b>
III.1 OSAKIDETZA.....	10
III.1.1 Langileria Gastuak.....	10
III.1.2 Kontratazioa .....	10
III.1.3 Bestelakoak.....	11
III.2 OSATEK, SA.....	12
III.2.1 Aurrekontua eta aldaketak.....	12
III.2.2 Langileria Gastuak.....	12
III.2.3 Kontratazioa .....	13
<b>IV. URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>14</b>
IV.1 OSAKIDETZA.....	14
IV.2 OSATEK, SA.....	20
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>25</b>
A.1 Izaera eta arautegi ezargarria .....	25
A.2 Hornidurak eta langileen kontingentziak .....	26
A.3 Langileria Gastuak .....	28
A.4 Kontratazioa.....	30
A.5 Osatek, S.A.....	34
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>37</b>



<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>57</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>59</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>60</b>
II.1 OSAKIDETZA.....	60
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	60
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	60
II.2 OSATEK, S.A.....	61
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	61
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	61
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>62</b>
III.1 OSAKIDETZA.....	62
III.1.1 Gastos de personal.....	62
III.1.2 Contratación .....	62
III.1.3 Otros .....	63
III.2 OSATEK, S.A.....	64
III.2.1 Presupuestos y modificaciones.....	64
III.2.2 Gastos de personal.....	64
III.2.3 Contratación.....	65
<b>IV. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>66</b>
IV.1 OSAKIDETZA.....	66
IV.2 OSATEK, S.A.....	72
<b>ANEXOS .....</b>	<b>77</b>
A.1 Naturaleza y normativa aplicable .....	77
A.2 Provisiones y contingencias de personal.....	78
A.3 Gastos de personal .....	80
A.4 Contratación.....	82
A.5 Osatek, S.A.....	86
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>89</b>

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 28a

Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2018



## LABURDURAK

BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAETB	1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EGPS	Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte-politiken Saila.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Autzitegi Gorena.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EM	Erresonantzia Magnetikoa.
INSALUD	Osasuneko Institutu Nazionala.
KEB	Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
MA	Marko Akordioa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TGEEZ	Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
UO	Unibertsitate Ospitalea.
ZEI	Zerbitzu Erakunde Integratua.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraikiz, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: aplikagarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Berebat, Osatek, SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetzak kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, SAren urteko kontuen eta aurrekontua eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lanak sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu dira eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez, berezko lege-nortasunik ez duten arren, kudeaketarako autonomia dutenak.

2016ko abenduaren 31n, Erakunde Zentral, Larrialdi eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroaz gain, 13 zerbitzu erakunde integratu “ZEI”, osasun mentaleko 3 zentro eta 2 ospitale daude:

- Nagusiak: Araba, Donostialdea, Bilbo Basurto eta Ezkerraldea-Gurutzetako ZEIak.
- Eskualdekoak: Arabako Errioxa, Debagoiena, Bidasoa, Goierri-Urola Garaia, Debarrena, Barrualde-Galdakao, Barakaldo-Sestaoko ZEIak eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako osasun mentaleko sarea.
- Egonaldi luzekoak: Gorliz, Santa Marina eta Leza (Arabako Errioxako ZEIan).
- Lehen mailako atentzioa: Tolosaldea eta Uribeko ZEIA.



## II. IRITZIA

### II.1 OSAKIDETZA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### Kontratazioa

1. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du (SPKLTBren 86. art.), Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol txostenetatik eratorzen den moduan, ezargarria den legediari kontratu mota hau egokitzeari dagokionez. Sendagaien horniketari dagokionez, akats hau azaleratu da guztira aztertu diren 21,9 milioi euroetatik 8,7 milioi euroren erosketetan, hau da, % 39,9tan; eta gainerako hornigaietatik produktu homogeneoen erosketetan, aztertutako 105 milioi euroetatik 82,9 milioi euroren erosketetan, hau da, horien % 81,1etan. (Ikus A.4).
2. Zenbait zentrotarako bi angiografo digital biplano hornitu eta egokitzeko lanen espedientean, 2 milioi euroan esleitu zenean, ez da egoki justifikatzen premiazko larrialdi egoerarik dagoenik, kontratazio atalak aurreikus ezin zitzakeen gertakarien ondorioz publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta esleitu dena. Prozedura hau baliatzeko interpretazio murrizgarria egin behar da eta kontratazio publikoaren oinarriko printzipioekiko salbuespena da (SPKLTBren 170.e artikulua) (41. espediente).

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, Osakidetzak zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

#### II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insaludetik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil nagusiki eta 2016an gastu modura ekitaldian ordaindutako 6,8 milioi euroak jaso ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuariaren bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzapean printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 99 milioi euroan kuantifikatu ditu 2016ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (ikus A.2).

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespenaren ondorioak alde batera, Osakidetzaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren





jarduera ekonomikoa eta 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Iritzian eraginik izan gabe, txosten hau jaulki dugun datan EHJANen maiatzaren 9ko 225/2018 zk. epaia ezagutu da, irailaren 28ko 246/2017 epaiaren aurkako apelazio-errekurtsuaren gainekoa, lanbide garapenerako deialdiei dagokienez, 2011ko abenduaren 29ko 1930 eta 1931 eta maiatzaren 8ko 558/2014 ebazpen bidez onartutakoak; 246/2017 epaiaren indarrez aurrez aipatutako ebazpenen deialdi ohiko eta ez-ohikoak bertan behera utzi ziren. “Osakidetzak kasazioko errekurtsua aurkeztu du 225/2018 Epaiaren aurka 2018ko ekainaren 28an”.

## **II.2 OSATEK, S.A.**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen ustetan, Osatek, SAk zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Osateken urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 OSAKIDETZA

##### III.1.1 LANGILERIA GASTUAK

2016an indarrean dauden 21 antolakundeen egiturazko plantilla guztira 26.494 lanpostuk osatzen dute. KEBek 6 erakundetako 6.564 lanpostuetako 307 langile finko eta bitartekoen ordainsariak, % 4,5 egiten duena, eta behin-behineko langile estatutarioen 31 espediente aztertu ditu. Hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

- Gainditu egin da 9 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako finkatutako 2 urteko epemuga eta 18 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko muga.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien arautegi berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

##### III.1.2 KONTRATAZIOA

Aztertutako espedienteen zerrendan (ikus A.4) honako gorabehera hauek azaleratu dira:

- Guztira 7,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 11 espedientetan -3 obratakoak, 4 zerbitzuetakoak eta 4 hornidurakoak- prezioaren irizpidea eskaintza tipoari puntuak bermatzen dizkion formula batez puntuatzen da, baita eskaintzak lizitazio tipoa berdintzen duenean ere, eta horrek desitxuratu egiten du irizpide hau eta eragina du balio judizio bidezko irizpide bidez balioztatu beharreko ehunekoaren proportzian (SPKLTBren 150. artikulua) (35, 48, 49, 50, 51, 57, 69, 70, 74, 75, 77 espedienteak).
- 16 espedientetan -2 obratakoak, 7 zerbitzuetakoak eta 2 hornidurako eta obretako mistoak- 33,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, eskaintza ekonomikoen balorazioan mugak edo atalaseak ezartzen dira eta horietatik gora merkatze gehigarriak aurkezteari sustagarria kentzen diote, eskaintza onuragarriagoa hautatzea zailduz (36, 37, 39, 40, 41, 44, 52, 53, 54, 58, 59, 60, 64, 65, 71, 72 espedienteak).
- Guztira 4 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan -1 obretakoa eta 2 zerbitzuetakoak- balio-judizio baten baitako kuantifikazioa duten eskaintzen esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa Pleguetan (SPKLTBren 150. artikulua) (52, 62, 73 espedienteak).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Guztira 40 milioi euroan esleitutako 14 espedientetan, zerbitzuko 4tan eta hornidurako 10etan, aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen, muga kuantitatiboarena izan ezik, hau da, modu argi, zehatz, zalantzarik gabe aurreikusgarriak, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak (SPKLTBren 106. artikulua) (37, 38, 40, 50, 51, 52, 54, 56, 66, 67, 68, 72, 74, 77 espedienteak).
- 2 espedientetan, 1 obretakoa eta 1 zerbitzuetakoa, guztira 968 mila euroren zenbatekoan esleitutakoetan, balio judizioetara meneratutako irizpideen balorazio txostena ez da arrazoituta aurkezten (SPKLTBren 150 eta 151.4 art.) (73,75 espedienteak).

Bestetik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontrol txostenak aztertzean ikusi da aztertutako 71,8 milioi euroatik 7,3 milioi eurotan zatikapena egin dela produktu homogeneoak erostean, eskaintzarik eskatu gabe, hau da aztertutakoen % 10,2an.

Orobat, 13 zerbitzu erakundetan guztira 4,4 milioi euroren zenbatekoan kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioetan ikusi da zatikatu egin dela kontratazioaren xedea 3 zentrok gauzatutako erosketetan, 842.487 euroren zenbatekoan, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeko ezarritako prozedurak. Guztizkotik % 75 “Erabilera klinikoa duen makineria” kontukoa da (ikus A.4).

### III.1.3 BESTELAKOAK

Aintzat harturik uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 3. xedapen gehigarria aldarazten duen abenduaren 3ko 31/2014 Legeak eskatutakoa, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako borroka-neurriak ezartzen dituen, eta uztailaren 26ko 11/2013 legeak erabakitakoa, ekintzaileari laguntza emateko neurriei eta hazkuntza eta enpleguaren sorrera bultzatzeko neurriei buruzkoa, 2016ko urtean hornitzaileei ordaindutako 894 milioi euroren zenbatekoak 8 egunean gainditu du batez beste legeak finkatzen duen 30 eguneko epea. 2016ko abenduaren 31n ordaintzeko dagoen 110 milioi euroren zenbatekoari dagokionez, ez du aurrez aipatutako legezko epea gainditu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## III.2 OSATEK, S.A.

### III.2.1 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

- 2016ko langile gastuen aurrekontuaren zenbatekoa, aurreko ekitaldian bezalaxe, ez zaie Sozietatearen egiazko beharrei egokitzen eta horren ondorioz ekitaldi amaieran 2,4 milioi euroren aurrekontuko aldaketa onartu behar izan da, hasiera batean sobera aurrekontu egindako funtzionamenduko gastua langile gastura aldatuz. Langile gastuak eta aurrekontuko plantilla aurrekontuan zuzen jasotzea gomendatzen dugu, 2016an indarrean zeuden kudeaketa gomendioetatik eratorritako egiazko beharrianetara egokituaz.

### III.2.2 LANGILERIA GASTUAK

#### Ordainsariak

- Produktibitate-osagarriaren kontzeptuak 2016an 3,4 milioi euroren gastua eragin du, hau da, soldata eta ordainsarien zenbatekoaren % 31,98. Miaketa informatuen kopurua, zeinetatik aurrera osagarria jasotzen duten, 1.599 izan da erradiologoek kasuan eta 10 txandako gainerako langileria zuzenari dagokionez, eta ez da 2001az geroztik gaurkotu, baliatutako ekipoak prestazio eta eraginkortasun handiagokoak izan arren; ezaugarri hau aintzat hartu beharrekoa da, 2001ean onartutako ordainsarien sisteman arautu zen moduan. 2016an erradiologoek miaketa informatuen kopurua batez bestean 3.093koa izan da eta gainerako langileria zuzenarena 18 txanda bakoitzeko; honenbestez, aurrez aipatutako zifrak gaurkotzea gomendatzen dugu eta produktibitate-pizgarriaren kalkulua egiazko batez besteko zifretara doitzea.
- 2016an ordaindutako ordainsariei dagokienez, 2015eko fiskalizazio txostenean azaleratu genituen zuzendu beharrekoek bere horretan dira: lurraldeko arduradunei gainerako erradiologoek aldean miaketa bakoitzeko ordaindutako zenbatekoan dagoen aldea, erradiologo baten oinarritzko soldata hitzarmeneko tauletara ez egokitzea eta teknikariei oinarritzko soldataren % 2ren urteko ekoizpen osagarria ordainsari finko modura ordaintzea; horrek praktikan indarreko ordainsari tauletan finkatutako ordainsaria gaintzen duen kopurua jasotzea dakar.
- Osateken hitzarmenak “Antzintasun” kontzeptuan izaera kualitatibo eta kuantitabo aldetik hobekuntzak jasotzen ditu; baita zenbait plusetan ere, EAEko Administrazio orokor eta erakundeen administrazioari, eta Osakidetza zehazki, ezargarria zaionarekiko. Gomendagarria litzateke ahal den neurrian nominako kontzeptuak berdintzea eta oro har, indarreko Hitzarmenaren baldintzak, 2007an izenpetu zena.

#### Aldi baterako kontratuen altak

- Bestetik, badira 2016ko abenduaren 31n produkzioaren gorabeheren ondorioz luzatu diren aldi baterako kontratuak eta horiek desitxuratu egiten dute hasierako kontratu mota. Gainera, aldi baterako kontratuak kateatzeak harik eta lanpostua arauz betetzen den arte lotura mugagabe ez finkoa eragin dezake, egun Sozietatearen egiturazko plantillan existitzen ez dena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2.3 KONTRATAZIOA

- Guztira 70.438 euro egin duten 3 aseguru poliza kontratatzeko ez da espedienterik lizitatu eta kontratu txiki modura izapidetu dira; sorten arabera lizitatu zitezkeen, baina.

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZA**

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2016	2015
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>954.188</b>	<b>958.178</b>
Ibilgetu ukiezina.....	7.539	10.058
Aplikazio informatikoak.....	7.539	10.058
Ibilgetu materiala.....	941.304	942.763
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	805.136	745.872
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	104.878	101.178
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	31.290	95.713
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	4.352	4.352
Ondare baliabideak.....	4.352	4.352
Finantza inbertsioak epe luzera.....	993	1.005
Hirugarrenei kredituak.....	992	1.004
Bestelako aktibo finantzarioak.....	1	1
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>343.384</b>	<b>340.898</b>
Izakinak.....	50.672	46.791
Botikako produktuak.....	25.105	22.568
Kontsumoko osasun materiala.....	22.845	21.624
Bestelako hornidurak.....	2.722	2.599
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	185.892	198.918
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	4.728	4.356
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	175.322	185.827
Askotariko zordunak.....	991	1.279
Langileria.....	4.532	7.103
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	319	353
Epe motzeko finantza inbertsioak.....	618	392
Bestelako aktibo finantzarioak.....	618	392
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	1.075	850
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....	105.127	93.947
Diruzaintza.....	2.608	2.147
Beste aktibo likido baliokide batzuk.....	102.519	91.800
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.297.572</b>	<b>1.299.076</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2016	2015
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>990.270</b>	<b>993.295</b>
FUNTS PROPIOAK .....		44.974	45.135
Funts soziala .....		18.490	18.411
Aurreko ekitaldietako ondorioak .....		26.724	26.638
Geldikina .....	26.724		26.638
Ekitaldiaren emaitza .....		210	86
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....		944.846	948.160
<b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>		<b>13.096</b>	<b>13.551</b>
Epe luzeko hornidurak .....		1.515	1.033
Bestelako hornidurak .....	1.515		1.033
Epe luzeko zorrak .....		11.581	12.518
Beste finantza pasibo batzuk .....	11.581		12.518
<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>294.206</b>	<b>292.230</b>
Zorrak epe laburrera .....		31.153	29.786
Beste finantza pasibo batzuk .....	31.153		29.786
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk .....		262.813	262.202
Hornitzaileak .....	125.829		128.423
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak .....	3.618		2.881
Askotariko hartzekodunak .....	2.618		2.834
Langileria .....	3.808		7.784
Bestelako zorrak administrazio publikoekin .....	126.940		120.280
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		240	242
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.297.572</b>	<b>1.299.076</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2016	2015
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	2.627.802	2.558.609
Zerbitzu emakida .....	2.627.802	2.558.609
Hornidurak .....	(694.796)	(668.894)
Botika produktuen kontsumoa.....	(280.615)	(266.650)
Osasun materialaren kontsumoa.....	(266.916)	(259.375)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa .....	(20.998)	(21.505)
Kanpoko beste gastu batzuk.....	(126.169)	(121.057)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura .....	(98)	(307)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	28.905	32.995
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	27.432	30.810
Ekitaldiaren emaitzara xertatutako ustiapeneko diru-laguntzak .....	1.473	2.185
Langileria-gastuak.....	(1.801.678)	(1.761.492)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(1.434.604)	(1.404.157)
Gizarte zamak .....	(367.074)	(357.335)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	(159.357)	(160.500)
Kanpoko zerbitzuak.....	(151.098)	(153.545)
Tributuak.....	(526)	(460)
Merkat. eragiketengatik galerak, narriad. eta hornig. bariozioa .....	(2.416)	(1.072)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	(5.317)	(5.423)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(50.449)	(54.629)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste .....	52.841	54.684
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	(2.839)	(545)
Narriadura eta galerak .....	(2.839)	(545)
Besterenganatzeagatik emaitzak eta beste.....	-	-
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>429</b>	<b>228</b>
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideen sarrera finan. ....	-	-
Hirugarrenetikozorreatatik finantza gastuak .....	(219)	(140)
Trukaneurri aldeak .....	-	(2)
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(219)</b>	<b>(142)</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>210</b>	<b>86</b>
<b>ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>210</b>	<b>86</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>210</b>	<b>86</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA</b>	<b>210</b>	<b>86</b>
ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	49.527	46.506
<b>ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>49.527</b>	<b>46.506</b>
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(52.841)	(54.684)
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA</b>	<b>(52.841)</b>	<b>(54.684)</b>
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(3.104)</b>	<b>(8.092)</b>

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	FUNTS		AURR.EKIT.	JASOT. DIRU-LAG.		
	SOZIALA	GELDIKINA	EMAITZA NEGATIBOAK	EKIT. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGAT.	GUZTIRA
<b>2014-KO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.411</b>	<b>26.547</b>	-	<b>91</b>	<b>956.337</b>	<b>1.001.386</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	86	(8.178)	(8.092)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestel. aldatetako.....	-	91	-	(91)	-	-
<b>2015-EKO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.411</b>	<b>26.638</b>	-	<b>86</b>	<b>948.159</b>	<b>993.294</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	210	(3.314)	(3.104)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	80	-	-	-	-	80
Ondare garbiaren bestel. aldatetako.....	-	86	-	(86)	-	-
<b>2016-KO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.491</b>	<b>26.724</b>	-	<b>210</b>	<b>944.845</b>	<b>990.270</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2016	2015
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>12.556</b>	<b>(21.802)</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	210	86
Emaitzari doiketak .....	2.428	109
Ibilgetuaren amortizazioa.....	50.449	54.629
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak .....	2.515	1.379
Zuzkiduren aldaketa .....	720	(251)
Diru-laguntzen egozketa.....	(54.314)	(56.335)
Baja eta besterenganatzeengatik emaitzak.....	2.839	545
Finantza sarrerak .....	-	-
Finantza gastuak.....	219	140
Trukaneurri aldeak.....	-	2
Kapital arruntean aldaketak .....	10.061	(21.997)
Izakinak .....	(3.979)	(5.188)
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk .....	13.069	(44.441)
Beste aktibo arrunt batzuk .....	(225)	(31)
Hartz. eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	611	20.506
Beste pasibo arrunt batzuk .....	823	7.267
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(238)	(110)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(143)	-
Interesen ordainketak .....	(143)	-
Interesen kobrantzak .....	-	-
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(46.296)</b>	<b>(44.342)</b>
Inbertsioengatik ordainketak.....	(47.829)	(45.906)
Ibilgetu ukiezina/materiala .....	(46.117)	(44.204)
Bestelako aktibo finantzarioak .....	(1.712)	(1.702)
Desinbertsioengatik kobrantzak .....	1.533	1.564
Bestelako aktibo finantzarioak .....	1.533	1.564
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>44.920</b>	<b>53.337</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	47.882	53.720
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	47.882	53.720
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(2.962)	(383)
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa .....	(2.962)	(383)
<b>TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA</b>	<b>-</b>	<b>(2)</b>
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>11.180</b>	<b>(12.809)</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	93.947	106.756
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	105.127	93.947



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2016-KO ABENDUAREN 31-N (\*) Euroak milakotan

INBERTSIOAK/FINANTZAKETA	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA			
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera .....	48.577	737	49.314	49.310	(4)	% 100
Ibilgetu ukiezina .....	2.039	-	2.039	1.861	(178)	% 91
Ibilgetu materiala.....	46.538	737	47.275	47.449	174	% 100
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.....	3.475	-	3.475	1.693	(1.782)	% 49
Finan. pasibo baliabid. jaitsiera (itzulketa eta amort.)..	-	-	-	3.559	3.559	-
Truke tipoen bariazioen ondorioa.....	-	-	-	11.180	11.180	-
<b>INBERTSIOAK GUZTIRA</b>	<b>52.052</b>	<b>737</b>	<b>52.789</b>	<b>65.742</b>	<b>12.953</b>	<b>% 125</b>
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu positiboak .....	-	-	-	10.714	10.714	-
Transf., diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	48.577	629	49.206	49.527	321	% 101
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.....	3.475	80	3.555	1.582	(1.973)	% 44
Ondare baliabideen jaulkipena.....	-	80	80	80	-	% 100
Bestelako finantza inbertsioak.....	3.475	-	3.475	1.502	(1.973)	% 43
Pasibo finantz. baliabideen igoera .....	-	-	-	3.919	3.919	-
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia .....	-	28	28	-	(28)	% 0
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>52.052</b>	<b>737</b>	<b>52.789</b>	<b>65.742</b>	<b>12.953</b>	<b>% 125</b>

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2016-KO ABENDUAREN 31-N (\*) Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA			
Langileria-gastuak .....	1.769.347	32.653	1.802.000	1.801.678	(322)	% 100
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	1.417.361	16.920	1.434.281	1.434.604	323	% 100
Gizarte zamak eta beste .....	351.986	15.733	367.719	367.074	(645)	% 100
Funtzionamendu gastuak.....	798.489	48.247	846.736	853.022	6.286	% 101
Hornidurak .....	631.292	63.922	695.214	700.740	5.526	% 101
Kanpoko zerbitzuak.....	166.701	(15.675)	151.026	151.098	72	% 100
Tributuak.....	496	-	496	526	30	% 100
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	-	-	-	658	658	-
Finantza gastuak.....	-	-	-	219	219	-
Erak. emateko diru-lag. eta egin beharreko transf. ....	5.393	-	5.393	4.659	(734)	% 86
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi ..	-	-	-	10.715	10.715	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>2.573.229</b>	<b>80.900</b>	<b>2.654.129</b>	<b>2.670.293</b>	<b>16.164</b>	<b>% 101</b>
<b>SARRERAK</b>						
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	2.543.516	80.900	2.624.416	2.627.803	3.387	% 100
Bestelako ustiapen sarrerak.....	28.827	-	28.827	29.977	1.150	% 104
Transferentziak eta ustiap. diru-laguntzak .....	886	-	886	1.473	587	% 166
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi..	-	-	-	11.040	11.040	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.573.229</b>	<b>80.900</b>	<b>2.654.129</b>	<b>2.670.293</b>	<b>16.164</b>	<b>% 101</b>

(\*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 3/2016 Zirkularraren II. Eranskinean ezarritako eredia baliatu du. Gauzatutako kopurua Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren G67 aplikaziotik eskuratzen da, onartutako urteko Kontuez bestelako kontuen multzokatzeak egiten dituen.

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

GUZTIRA	2017	2018	2019	GAINER.
<b>77.284</b>	<b>46.784</b>	<b>20.500</b>	<b>10.000</b>	-
Hitzartutakoa.....	31.932	25.724	6.208	-
Ordaintzeko.....	45.352	21.060	14.292	10.000



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 OSATEK, S.A.

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
	2016	2015	
<b>AKTIBOA</b>			
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>6.862</b>	<b>7.037</b>	
Ibilgetu ukiezina.....	45	22	
Aplikazio informatikoak.....	45	22	
Ibilgetu materiala.....	6.807	7.009	
Eraikuntzak.....	782	801	
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. Materiala...	6.025	6.208	
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	-	-	
Finantza inbertsioak epe luzera.....	10	6	
Hirugarrenei kredituak.....	10	6	
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>6.860</b>	<b>9.221</b>	
Izakinak.....	-	57	
Lehengaiak eta bestelako hornidurak.....	-	-	
Hornitzaileei aurrerakinak.....	-	57	
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. ....	3.313	4.921	
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	21	14	
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	3.280	4.890	
Langileria.....	12	17	
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	656	1.323	
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak.....	2.891	2.920	
Diruzaintza.....	2.891	2.920	
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>13.722</b>	<b>16.258</b>	

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
	2016	2015	
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>			
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>10.051</b>	<b>10.157</b>	
Funts propioak.....	8.852	8.782	
Kapitalekoak.....	3.123	3.123	
Erreserbak.....	5.659	5.656	
Legezko eta estatutarioak.....	672	672	
Beste erretserba batzuk.....	4.987	4.984	
Ekitaldiaren emaitza.....	69	3	
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	1.200	1.375	
<b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>466</b>	<b>535</b>	
Gerorat. zergarengatiko pasiboak.....	466	535	
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>3.205</b>	<b>5.566</b>	
Epe laburreko zorra.....	93	1.661	
Merkataritz. hartzek. eta ordaint. beste kontu batzuk.....	3.112	3.905	
Hornitzaileak.....	100	108	
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	261	899	
Askotariko hartzekodunak.....	643	991	
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	901	579	
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	-	10	
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....	563	503	
Bezeroei aurrerakinak.....	644	815	
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>13.722</b>	<b>16.258</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2016	2015
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	24.380	23.201
Zerbitzu ematea.....	24.380	23.201
Hornidurak .....	(702)	(662)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa .....	(702)	(662)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	185	96
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	113	96
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak .....	72	-
Langileria-gastuak .....	(13.060)	(11.885)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(10.992)	(9.926)
Gizarte zamak .....	(2.068)	(1.959)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	(9.543)	(9.568)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko bestelako gastuak. ....	(9.523)	(9.468)
Tributuak.....	(20)	(17)
Merkat. eragiketengatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz. ....	-	(83)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(1.532)	(1.435)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste .....	244	244
Beste emaitza batzuk .....	104	17
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>76</b>	<b>8</b>
Finantza sarrerak.....	-	-
Finantza gastuak.....	(7)	(5)
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(7)</b>	<b>(5)</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>69</b>	<b>3</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>69</b>	<b>3</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>69</b>	<b>3</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA</b>	<b>69</b>	<b>3</b>
<b>ONDARE GARBIAK ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(244)	(244)
Zerga ondorioa .....	69	68
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA</b>	<b>(175)</b>	<b>(176)</b>
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(106)</b>	<b>(173)</b>

ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan				
	Eskrituran jasotako kapitala	Erreserb.	Ekitald. emaitza	Jasot. Diru-lag., Dohainta eta beste	Guztira
<b>2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>6.251</b>	<b>(595)</b>	<b>1.551</b>	<b>10.330</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	3	(176)	(173)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	(595)	595	-	-
<b>2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>5.656</b>	<b>3</b>	<b>1.375</b>	<b>10.157</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	69	(175)	(106)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	3	(3)	-	-
<b>2016-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>5.659</b>	<b>69</b>	<b>1.200</b>	<b>10.051</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2016		2015
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>1.324</b>		<b>2.139</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	69		3
Emaitzaren doiketak .....	1.295		1.197
Ibilgetuaren amortizazioa.....	1.532	1.435	
Diru-laguntzen egozketa.....	(244)	(244)	
Finantza sarrerak .....	-	-	
Finantza gastuak.....	7	6	
Kapital arruntean aldaketak .....	(33)		943
Izakinak .....	57	-	
Zord. eta kobratz. bat kontu batzuk.....	1.608	(2.275)	
Beste aktibo arrunt batzuk.....	667	689	
Hartz. eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	(793)	913	
Beste pasibo arrunt batzuk .....	(1.568)	1.621	
Beste aktibo eta pasibo ez arruntak .....	(4)	(5)	
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(7)		(4)
Interesen kobrantzak .....	-	-	
Interesen ordainketak .....	(7)	(6)	
Kobrantzak (Ordainketak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan.....	-	2	
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(1.353)</b>		<b>(1.802)</b>
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(1.353)		(1.802)
Ibilgetu materiala.....	(1.324)	(1.780)	
Ibilgetu ukiezina .....	(29)	(22)	
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>(29)</b>		<b>337</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	2.920		2.583
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	2.891		2.920



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA				
	HASIER.	ALDAK.EGUNGOA	GAUZATUA	ALDEA	%
<b>INBERTSIOAK</b>					
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera .....	1.355	-	1.355	1.353	(2) % 100
Ibilgetu ukiezina .....	80	-	80	29	(51) % 36
Ibilgetu materiala.....	1.275	-	1.275	1.324	49 % 104
<b>INBERTSIOAK GUZTIRA</b>	<b>1.355</b>	<b>-</b>	<b>1.355</b>	<b>1.353</b>	<b>(2) % 100</b>
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxu positiboak .....	1.355	-	1.355	1.324	(31) % 98
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia .....	-	-	-	29	29 -
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>1.355</b>	<b>-</b>	<b>1.355</b>	<b>1.353</b>	<b>(2) % 100</b>

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA				
	HASIER.	ALDAK.EGUNGOA	GAUZATUA	ALDEA	%
<b>GASTUAK</b>					
<b>LANGILERIA GASTUAK</b>	<b>10.700</b>	<b>2.361</b>	<b>13.061</b>	<b>13.060</b>	<b>(1) % 100</b>
Soldata, lansariak eta antzekoak .....	8.929	2.361	11.290	10.992	(298) % 97
Gizarte zamak eta beste.....	1.771	-	1.771	2.068	297 % 117
<b>FUNTZIONAMENDU GASTUAK</b>	<b>12.531</b>	<b>(2.361)</b>	<b>10.170</b>	<b>10.245</b>	<b>75 % 101</b>
Hornidurak .....	2.684	(1.988)	696	702	6 % 101
Kanpoko zerbitzuak .....	9.830	(373)	9.457	9.523	66 % 101
Tributuak .....	17	-	17	20	3 % 118
<b>FINANTZA GASTUAK</b>	<b>5</b>	<b>-</b>	<b>5</b>	<b>7</b>	<b>2 % 140</b>
<b>USTIAK. JARD. ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK</b>	<b>1.355</b>	<b>-</b>	<b>1.355</b>	<b>1.324</b>	<b>(31) % 98</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>24.591</b>	<b>-</b>	<b>24.591</b>	<b>24.636</b>	<b>45 % 102</b>

SARRERAK

Negozio zifraren zenbateko garbia.....	24.591	-	24.591	24.380	(211) % 99
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	-	-	-	289	289 -
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi..	-	-	-	(33)	(33) -
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>24.591</b>	<b>-</b>	<b>24.591</b>	<b>24.636</b>	<b>45 % 102</b>

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2017	2018	2019	GAINER.
<b>EGUNGO AURREKONTUA</b>	<b>220</b>	<b>150</b>	<b>70</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Hitzartutakoa.....	-	-	-	-	-
Ordaintzeko.....	220	150	70	-	-





## ERANSKINAK

### A.1 IZAERA ETA ARAUTEGI EZARGARRIA

Osakidetza ekainaren 26ko 8/1997 Legeak sortu zuen, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, osasun gaitetan eskumena duen EAeko Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente publiko modura; nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun erabatekoa duen helburua betetzeko: mendeko dituen zerbitzuetako erakunde publikoen bitartez osasun zerbitzuak hornitzea.

Zuzendaritza-organo ditu administrazio-kontseilua eta lehendakaria, Osasun Saileko sailburuak betetzen duena.

Egiturari dagokionez, 2016an Osakidetza bere 21 zerbitzu erakundeez baliatu da funtzionamendurako, OSATEK, SA salbuetsita, zeinek jarduera autonomia ekonomiko finantzario eta kudeaketakoaren printzipioaren arabera garatzen duten; honenbestez, erakunde hauetako bakoitzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin nork bere kontratu-programa izenpetzeko gaitasuna du. Kontratu-programek izaera bereziko hitzarmenaren izate juridikoa dute eta horietan mugarrizten dira, besteak beste, erakundeek eskaintzen dituzten osasun zerbitzuetan jardueraren osotasunezko bolumenaren balioespena, eskagarri den kalitate mailarekin batera eta dagokion ordain ekonomikoa.

2011ko urriaren 3ko Erabaki bitartez, Osakidetzako administrazio-kontseiluak antolakuntza-molde berri bat abiarazi zuen Erakunde Sanitario Integratuak "ESI" sortuta, lehen mailako arreta eta arreta espezializatua barne, baliabideen kudeaketan eraginkortasuna hobetu eta laguntza prozesuei jarraipena emateko. 2016an ez da beste zerbitzu-erakunderik sortu.

Finantziazio-iturria, nagusiki, EAeko Aurrekontu Orokorren kontura EAeko Osasun Sailarekin urtero izenpetzen den kontratu-programatik dator, Enteko inbertsioak finantzatzeko kapital-diru-laguntzekin batera. Jarduera gauzatzeko Osakidetzak EAeren jabetzako ondasun eta eskubideak ditu atxikiak edota Estatuko Gizarte Segurantzarenak.

Osakidetzaren jardueraren gaineko finantza kontrol iraunkorra Ekonomia Kontrolerako Bulegoak gauzatzen du.

2016ko ekitaldian Osakidetzari ezargarrria zaion arautegiaren baitan, aipatzekoa da:

- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren estatutu sozialak finkatzen dituena.
- 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun Zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoa onartzen duena.
- 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituena.



- 235/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakia onartzen duena, 2007, 2008 eta 2009 urteetarako, 2016an indarrean dagoena.
- 1996ko abenduaren 23ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra Osasun Laguntzako Enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena; 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, aldarazten duena eta 602/2016 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, biak aldarazten dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onartzen duena.
- 9/2015 Legea, abenduaren 20koa, 2016ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 136/1996 Dekretua, ekainaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzkoa.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, partzialki garatzen duena, Zerbitzu Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duena.

Osakidetzaren urteko kontuak formulatu dira 1514/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoari jarraikiz; egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontuak eskuratzen dira zerbitzu-erakundeen finantza egoerak gehitzeko prozesuaren ondorioz.

Osakidetzak Osatek, SAren kapital sozialaren % 100 badu ere, ez ditu urteko kontu bateratuak aurkezten, nahiz kontu bateratu horien isla zuzena ez litzatekeen nabarmen aldatuko Osakidetzak eta Osatekek nor bere aldetik aurkezten dituen urteko kontuekin alderatuz gero.

## **A.2 HORNIDURAK ETA LANGILEEN KONTINGENTZIAK**

### **Pentsioetarako zuzkidurak**

Osakidetzaren obligazioak pentsio gaietan honako hauek dira:

- Pentsioen osagarriak.
  - Insalud-etik eskualdatutako osasun langile estatutario ez fakultatiboak, zegokionean erretiroa eskatu eta 25 urteko zerbitzualdia egiaztatu zuenak, erretiro unean jasotzen zituen ordainsari finkoen % 100era arteko pentsioa jasotzen du. 16/2012 Errege Lege-dekretua, apirilaren 20koa, Osasunaren Nazio Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzkoa



indarrean sartu izanaren ondorioz, 2012ko apiriletik aurrera ez da kolektibo honetan plantilla handitu.

- Tuberkulosiaren aurkako Patronatutik datorren langileria, Enteak osorik jasotzen duena gizarte Segurantzari ez kotizatu izateagatik.
- 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratutako Basurtoko Ospitaleko langileria jakina.

- Erretiro sariak:

Arauzko erretiro-adina baino urtebete eta lau urte bitarte lehenago erretiratzen den langileria. Abenduaren 23ko 6/2011 Legeak, 2012ko ekitaldirako EAEren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, sari honen aplikazioa bertan behera utzi zuen eta ondoko ekitaldietan etenaldiak dirau.

2016ko abenduaren 31n pentsioetarako zuzkidura 99 milioi eurorena izan da, Osakidetzak emandako aztergai diren kolektiboaren datuak oinarri hartuta aditu independenteek egindako azterketa aktuarial baten arabera.

Enteak zuzkidura hau ez erregistratzeko eta soil-soilik egiaz gauzatutako urteko gastua kontabilizatzeko irizpideari eusten dio, 6,8 milioi eurorena izan dena.

Hona hemen pentsioetarako zuzkidura eta kontzeptu honen izenean ekitaldian gauzatutako gastuak kolektibo moten arabera banatuak:

KOLEKTIBO MOTA	Euroak milakotan	
	GASTUAK	ZUZKIDURA
Insaludetik datozen langile pasiboak .....	6.610	98.148
Tuberkulosiaren aurkako Patronatuko langileak .....	125	804
Basurtoko Ospitaleko 1995 baino lehenagoko langileak.....	18	83
Erretiro saria jasotzeko eskubidea duten langileak.....	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.753</b>	<b>99.035</b>

2004ko irailaren 30eko Entearen administrazio-kontseiluaren erabaki bitartez onartu zen Eusko Jaurlaritzak sortutako Itzarri gizarte-aurreikuspeneko erakundera atxikitzea, alde aurretik erakunde sindikalekin adostu ondoren. 2016an etenda daude Itzarriri egin beharreko ekarpenak, abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-Dekretuaren ondorioz, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza gaietan premiazko neurriei buruzkoa.

## 2012ko abenduko aparteko ordainsaria

EAEren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 16ko 9/2015 Legeari jarraikiz 18,5 milioi euroren zenbatekoa ordaindu da, zorpetze aldiaren 48 egunen baliokidea (% 26,67 inguru), 2012ko abenduko aparteko ordainsaria eskuratzeko. Honenbestez, 2016ko abenduaren 31n ordaintzeke dago 96 egun dagokien kopurua (guztiaren gainean % 48,89), zeina 2017an ordaindu den 33,8 milioi euroren zenbatekoan, urte horretarako EAEre Aurrekontu Orokorrei buruzko apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 12. xedapen gehigarria aldarazten duen



azaroaren 2ko 3/2017 Legea betez, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legean aurreikusitakoa betez onartutakoa.

Gainera, 2016ko abenduaren 31n kobratzeko 2 milioi euroren zenbatekoa, 2012ko uztailaren 1 eta abenduaren 31 bitartean baja izan ziren langileen likidazioetan 2012ko abenduko aparteko ordainsaritik ordaindutakoari dagokiona, oso-osorik berdindu da 2017ko azaroko nominan ordaindutako atzerapenen ordainketarekin.

### A.3 LANGILERIA GASTUAK

Idazpuru honen gastuak guztira 1.801,9 milioi euro egiten ditu eta 2016ko ekitaldiaren ustiapen gastuen % 66,5 egiten du.

Langile gastuaren xehakapena eta batez besteko plantilla honakoa da:

	Euroak milakotan		Langile kop.	
	2016	2015	BAT. BEST. PLANTILLA 2016	2015
Finkoak, bitartekoak eta zuzendariak .....	1.010.366	997.022	23.846	23.408
Aldi baterakoak .....	289.018	278.979	8.568	8.452
Ordezkoak .....	89.824	81.989	2.756	2.501
Barruko osasun langile egoiliarak .....	45.396	46.167	1.236	1.276
<b>SOLDATAK ETA PLANTILLA GUZTIRA</b>	<b>1.434.604</b>	<b>1.404.157</b>	<b>36.406</b>	<b>35.637</b>
Gizarte Segurantzaren kotizazioa .....	355.607	345.806		
Pentsioak .....	6.886	7.054		
Bestelako gizarte gastuak .....	4.581	4.475		
<b>GIZARTE ZAMAK GUZTIRA</b>	<b>367.074</b>	<b>357.335</b>		
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.801.678</b>	<b>1.761.492</b>		

Abenduaren 23ko 9/2015 Legean finkatutakoari jarraikiz, EA Eren 2016rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, Osakidetzako langileen ordainsariak 2016an % 1 igo dira 2015ean finkatutakoekiko. Nolanahi den ere, langile gastua 30,4 milioi euro hazi da, % 2,2 aurreko ekitaldiarekiko, batik bat, apirileko nominan 2012ko abenduko aparteko ordainsaria zati batean berreskuratzeari dagokiona batetik, ordainsariaren % 25 inguru, eta bestetik, ordezko eta aldi baterako langileen kontratazio beharren ondorioz, unean uneko beharrak artatu eta osasun demanda bideratzeko.

Osakidetzako egiturazko plantillari dagokionez, Zerbitzu Erakunde Integratu berrietan metatutako zenbait zerbitzu antolamendu berregituratu izanaren ondorioz, 2016ko apirilaren 18ko Enteanen administrazio-kontseiluak lanpostu berriak amortizatu eta sortzea erabaki zuen, horien guztizko kopuruan aldaketarik egin gabe. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak, 2016ko uztailaren 19an, 700 lanpostu berri sortzea onartu zuen eta plantilla 25.700 lanpostutik 26.400 lanpostutara gehitzea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## EEP

Osakidetzaren 2016ko apirilaren 25eko administrazio-kontseiluak 2016ko ekitaldirako Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zuen, guztira estatutupeko langile finkoen 929 lanpostutarako, eta 271 plaza betetzeko barne sustapeneko hautaketa prozesuen deialdia. Gerora, Ogasun eta Herri-Administrazioen Ministerioak eskatuta, 2016ko irailaren 12ko Osakidetzaren administrazio-kontseiluan zuzendu eta onartu ziren: Enplegu Eskaintza Publikoaren 912 lanpostu guztira eta 288 lanpostu betetzeko barne sustapeneko hautaketa prozesuak.

2014 eta 2015eko Enplegu Eskaintza Publikoei dagokienez, Osakidetzako zuzendari nagusiaren 2015eko maiatzaren 28ko Ebazpen bitartez, hautaketa prozesuen oinarri orokor eta berariazkoak onartu ziren deialdi bateratuko guztira 507 lanpostutarako. 2016ko abenduaren 31n amaitu gabe daude 2014-2015eko Enplegu Eskaintza Publikoari dagozkion hautaketa prozesuetarik bat ere.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.4 KONTRATAZIOA

99 espediente aztertu ditugu, 33 aurreko ekitaldietan formalizatutakoak, zeinaren egikaritza 2016an gauzatu den, aldaketak eta/edo luzapenak kasua balitz, eta 44, 2016an gauzatutakoak.

### LEHENAGOKO URTEETAN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	ZENBATEKOA 2016		AKATSA
		ESLEIT. (**)	EXEK.	
<b>ZERBITZU NAGUSIAK</b>				
1. Marko akordioa (MA), Adalimumab hornitzea.....	EPGN	25.983	25.074	
2. MA Enfuvirtida, Trastuzumab, Dornasa Alfa eta Erlotinib hornitzea .....	EPGN	15.716	9.679	
3. MA Rituximab hornitzea .....	EPGN	13.219	12.048	
4. MA Infliximab hornitzea .....	A	11.053	8.229	
5. MA Etanercept hornitzea .....	EPGN	11.432	9.962	
6. MA Abacavir, Lamivudina, Maraviroc eta Fosamprenavir hornitzea.....	EPGN	9.136	4.305	
7. MA Cetuximab eta Sapropterina hornitzea .....	EPGN	4.459	2.028	
8. MA Lopinavir/Ritonavir, Levodopa/Carbidopa eta hesteetako gela asoz. ....	EPGN	5.398	3.085	
9. MA Raltegravir eta Aprepitant hornidura .....	EPGN	5.603	3.609	
10. MA Iloprost, Sorafenib eta Levonorgestrel hornidura.....	EPGN	5.140	2.927	
11. MA Alglucosidasa Alfa, Cabazitaxel, Plerixabor, Clofarabina eta beste .....	EPGN	4.246	2.600	
12. MA Emitricitabina, Rilpivirina eta Tecnofovir Disoproxil asoziazioa .....	EPGN	6.790	5.932	
13. MA giza Inmunoglobina arrunta hornitzea .....	A	4.004	2.178	
14. MA Coils hornidura, kraniobarneko aneurismak enbolizatzeke .....	A	3.702	1.921	
15. MA Zelulosa gaien hornidura .....	A	1.968	933	
16. MA binilo sintetiko eta erradiol. arintzeko guanteak hornitzea .....	A	1.303	474	
17. Hardware & software errentam, ospital. Datuak Prozes. Ztr. finkatzeko .....	A	1.264	590	
18. Bizkaiko eremuko zentr. elektromedizinako ekipamendua mantentzea .....	A	32.903	7.346	
19. Internetera sartzeko komunikazio eta segurtasun ingurunearen kudeaketa	A	1.275	1.010	
20. CRMrako ORACLE lizentziak, nortasunaren kudeaketa eta SIEBEL mant. ....	EPGN	732	641	
21. Nortasuna kudeatzeko proiektuaren manten., kudeaketa eta garapena .....	A	729	850	
<b>ZEI ARABA</b>				
22. Zentro oftalmologikoa gaitzea, Santiago Unib. Osp. B pab. 1. solairuan .....	A	1.013	896	
23. Eskuko kirurgiarako inplanteak hornitzea .....	A	1.062	400	
24. Oineko kirurgiarako inplanteak hornitzea.....	A	1.059	168	
<b>ZEI DONOSTIALDEA</b>				
25. Belauneko protesia .....	A	1.047	481	
26. Historia klinikoak digitalizatzea .....	EPGN	325	325	
<b>ZEI EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETA</b>				
27. Gurutzetako Unib.Osp. hemodinamika zerbitzurako materiala hornitzea.....	A	2.803	1.987	
28. Gurutzetako Unib.Osp. hodiak kirurgia zerbitzurako materiala hornitzea	A	892	490	
<b>ZEI BARRUALDE-GALDAKAO</b>				
29. MA traumatologia zerbitzurako bizkar hezurreko inplanteak .....	A	739	328	
30. MA erradiologia interbentzionistako materiala .....	A	778	588	
<b>ZEI BILBO-BASURTO</b>				
31. Erabili eta botatz. osasun mat. horn.: sentsoreak, anest., maskarak eta b. ....	A	570	344	
32. Bizkar hezurreko inplanteak hornitzea.....	A	1.583	611	
<b>TRANSFUSIO ETA GIZA-EHUNEN EUSKAL ZENTROA</b>				
33. Erreaktib. erorketa Hepatitis B, antigorputzak VIH, Hepatitis C & HTLV I & II	A	1.200	968	
<b>GUZTIRA</b>		<b>179.126</b>	<b>113.007</b>	

(\*) Prozeduraren erreferentziak:

A: Prozedura irekia PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua

EPGN Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua O: Beste batzuk

(\*\*) Esleitutako zenbatekoak guztizkoa jasotzen du aldaketa eta luzapenekin. Zenbateko egikaritua 2016.12.31n metatutakoa da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2016-AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	Kop. URTEAK	ZENBATEKOA 2016		AKATSA
			ESLEIT. (**)	EXEK.	
<b>ZUZENDARITZA NAGUSIA</b>					
34. Uribe-Kosta Ospitalea eraikitze lan osagarriak, II. fasea.....	EPGN	0,2	1.348	1.333	
35. Epaietan ordezkariak judizialeko zerbitzuak .....	A	2	500	24	A2
36. Urteko kontuetan auditoria lanak.....	A	3	192	-	A3
37. Zuzendaritza Nagusirako peoien zerbitzua .....	A	2	120	5	A3,5
<b>ZERBITZU NAGUSIAK</b>					
38. A.M. pauso-markagailuak, desfibriladoreak, holterak eta elektrodoak.....	A	2	23.655	598	A5
39. Oxigenoa eta medikuntzako gasak hornitzea zenbait ospitaletan .....	A	3	8.963	474	A3
40. ZEletarako jostura mekanikorako materiala hornitzea .....	A	2	9.093	691	A3,5
41. Bi angiografo digital biplano hornitu eta egokitzeko lanak .....	PGN	0,1	1.987	1.987	A1,3
42. MA Fingolimod, Everolimus eta Basiliximab .....	EPGN	1	4.222	3.245	-
43. Erabiltzaileei Laguntzeko Zerbitzurako zerbitzu ematea .....	A	2	1.142	904	
44. Laborategientzat informazio sistema ezartzea .....	A	2	1.797	146	A3
45. Telefonía finkoko azpiegitura mantendu eta kudeatzea .....	A	2	525	389	
46. Sistemen konfigurazioa kudeatzeko aholkularitza zerbitzuak .....	PGN	1	59	59	-
47. Aktibo informatikoak kudeatzeko aholkularitza zerbitzuak.....	PGN	1	59	59	-
<b>ZEI ARABA</b>					
48. Elikadura zerbitzuko eligaiak, lehengaiak eta material suntsikorra .....	A	2	2.820	193	A2
49. Txagorritxuko U.O. Larrialdi Zerb. zenbait eremu egokitzeko lanak.....	PGN	0,1	197	197	A2
<b>ZEI DEBAGOIENA</b>					
50. Traumatologiako ebakuntzetarako osteosintesia hornitzea .....	A	2	335	32	A2,5
51. Estaldura kirurgikoa emateko ekipoak hornitzea .....	A	2	135	14	A2,5
<b>ZEI DONOSTIALDEA</b>					
52. Estalduretan mantentze-zerbitzua .....	A	2	942	-	A3,4,5
53. Donostiako U.O. Oerako TAC (64 ebaketakoak) hornitzea.....	A	0,5	509	510	A3
54. Langile espedienteak digitalizatu eta zaintzea .....	A	3	164	152	A3,5
55. Gama altuko ekokardiografoa EPIQ 7 CV + Xcelera zabalkuntza horn.....	EPGN	1	116	116	
56. Oxigeno sentsoak hornitzea .....	EPGN	2	142	46	A5
<b>ZEI DEBABARRENA</b>					
57. Azpiegit., instalazio orokorrak, mak. eta altzarien mantentze-lana .....	A	2	1.200	750	A2.
<b>ZEI URIBE</b>					
58. Alfredo Espinosa osp. larrialdi zerb. erradio. digital zuzeneko aret. horn. ....	PGN	0,1	127	127	A3
59. Alfredo Espinosa O. endoskopia eremuaren barrualdea zaharberitzea.....	PGN	0,4	118	2	A3
60. Alfredo Espinosa osp. larrialdi zerbitzurako monitorizazioa hornitzea .....	PGN	0,1	84	84	A3
<b>ZEI BILBO-BASURTO</b>					
61. Elikadura, kafetegi eta vending zerb. ustiapena Basurtoko U.O. ....	A	4	8.643	198	-
62. Ikuztegi, arropa zuri, jostura eta banaketa zerb. Basurtoko U.O. ....	A	2	3.070	1.535	A4
63. Hiru ekokardiograforen errentam. erosteko aukerarekin Basurtoko U.O. ....	EPGN	4	333	76	-
64. Sotoa egokitzea Basurtoko U.O. Oko farmazia pabiloian .....	PGN	0,4	179	149	A3
<b>ZEI BARRUALDE-GALDAKAO</b>					
65. Zaintza, manten. eta egokitze lanak .....	A	3	3.223	220	A3
66. Aferesi zutabeak erostea leukozitoaferesientzat .....	EPGN	2	403	86	A5
67. MA Harmonic bisturirako erabili eta botatzeko materiala .....	EPGN	2	300	65	A5
68. MA Ligasurarako erabili eta botatzeko materiala .....	EPGN	2	207	48	A5
<b>ZEI BARAKALDO-SESTAO</b>					
69. Instalazio elektronikoak .....	PGN	2	195	26	A2
70. Obra txikiagoak San Eloy ospitalean .....	PGN	1	197	50	A2



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 2016-AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	URTE KOP.	ZENBATEKOA 2016		AKATSA
			ESLEIT. (**)	EXEK.	
<b>ZEI EZKERRALDEA ENKARTERRI GURUTZETA</b>					
71. Esterilizatzeko ekipamendu zentrala hornitu eta instalatzea .....	A	4,5	1.870	442	A3
72. MA neuroerradiologiako erabili eta botatzeko materiala .....	A	2	3.837	1.383	A3,5
<b>OSASUN MENTALEKO SAREA ARABA</b>					
73. 7. unitateko terraza eta barneko bi patio .....	PGN	0,3	70	60	A4 B1
<b>OSASUN MENTALEKO SAREA GIPUZKOA</b>					
74. Garbiketa zerbitzua .....	A	2	417	250	A2,5
<b>OSASUN MENTALEKO SAREA BIZKAIA</b>					
75. Garbiketa zerbitzua .....	A	2	898	595	A2 B1
<b>SANTA MARINA OSPITALEA</b>					
76. Santa Marina Ospitaleko 1. solairua zaharberritzeko lanak .....	PGN	0,2	135	135	-
<b>TRANSFUSIO ETA GIZA-EHUNEN EUSKAL ZENTROA</b>					
77. Hezur muinean eta zilbor hestean HAL tipajeak egiteko erreakt. erosc. ....	A	0,5	242	240	A2,5
<b>GUZTIRA</b>			<b>84.770</b>	<b>17.695</b>	

(\*) Prozeduraren erreferentziak:

A: Prozedura irekia N: Negoziatua PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua  
EPGN Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua O: Beste batzuk

(\*\*) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko egikaritua 2016ko abenduaren 31n metatutakoa da

## Akatsa

Euroak milakotan

### Lizitazioa

A1	Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua, behar hainbat arrazoitu gabea (SPKLTBren 170. art.).....	1.987
A2	Prezio irizpidea desitxuratu egiten da puntuazioa ziurtatzearen, balio judizioetan eraginez (APKLTBren 150.1 art.).	7.136
A3	Prezio irizpidea estimulurik gabe baje balorazioan mugaketak ezartzean (SPKLTBren 150.1 art.).....	33.205
A4	esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa ez Karatulan, ez Pleguetan ere (SPKLTBren 150. artikulua) ..	4.082
A5	Aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen, muga kuantitatiboa salbu (SPKLTBren 106. art.).....	39.991
<b>Esleipena</b>		
B1	txosten teknikoa ez da arrazoiturik aurkezten (SPKLTBren 150 eta 151.4 art.).....	968

Gainera, 2016an indarrean dauden 7 gastu espediente aztertu ditugu, zenbait ZEItan eragina dutenak eta nagusiki akordio edo atxikipen bidez gauzatu direnak.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ZEI/KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	ZENBATEKOA 2016		
	ESLEIT. (*)	EXEK.	AKATSA
<b>ZUZENDARITZA NAGUSIA</b>			
78. Osakidetzako aseguru orokorrak 2016-2017 urtea .....	6.869	6.727	
<b>ZERBITZU NAGUSIAK</b>			
79. Eusko Jaurlaritzako telekomunikazioetara atxikitze erabakia.....	22.154	6.509	
80. EJ esleitu bitartean Telekomunikazioen kontratua luzatzea.....	8.409	7.442	
81. Azpiegiturak eta eragiketak EJIEn integratzeko erabakia .....	15.000	7.565	
82. Komunikazioetarako Ondareko Zuzendaritza Nagusiaren 10/2012 erabakia.....	282	200	
83. Araba, Donostialdea, Bidasoa eta Basurtoko ZEletan energia eta kogenerazioa ...	12.310	9.142	
84. Barrualde-Galdakaoko ZEIn energia eta kogenerazioa .....	2.600	2.113	
<b>GUZTIRA</b>	<b>67.624</b>	<b>39.698</b>	

(\*) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko egikaritua 2016ko abenduaren 31n metatutakoa da

## Kontratu txikiak

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	K. TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA	
		ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%
Sendagaiak .....	280.615	21.858	% 7,8	21.858	% 100	8.739	% 39,9
Gainerako produktuak.....	287.913	114.134	% 39,6	105.019	% 92	82.909	% 78,9

Kontratu txiki bidez sendagaien erosketak dela-eta, azpimarratzekoa da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz izan duen bilakaera positiboa, 2012an 72,1 milioi eurorena izatetik, 2016an 21,9 milioi eurorena izatera.

Beste produktu batzuei dagokienez, 82,9 milioi euroetatik ez da publikotasuna eta lehia gorde 72,9 milioi euroren erosketetan, ez eta lehia 10 milioi euroren zenbateko erosketetan ere.

Gainera, kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioen erosketak aztertu du 13 zerbitzu-erakundetan, 4,4 milioi euro egin dituenetan; kopuru horrek aztertu ditugun ibilgetuko kontuetan erregistratutako alden % 9,06 inguru egin du. Egindako lanetik ondorioztatu da kontratuaren xedea zatikatu dela lehia printzipioa saihestuta kontratu txikien % 19,1ean; kontratu txiki horiek zerbitzu-erakunde horietako 3 zentrori dagozkie, 842.487 euroren zenbatekoan, zeinetarik % 75 "Erabilera klinikoko makineria" kontuari dagozkie.



## A.5 OSATEK, S.A.

Osatek, SA Osakidetzara –kide bakar duena- atxikitako sozietate anonimoa da; sorrera ekainaren 9ko 159/1992 Dekretu bidez baimendu zen, hasiera batean alta Tecnología Sanitaria, SA izena eman zitzaiola eta sozietatearen helburua honako hau zuela: goi mailako teknologia baliatzen duten osasunaren diagnostiko- eta tratamendu-zerbitzuak kudeatu, administratu eta ustiatzea; eta Euskal Herriko osasun politika globalaren esparruan zehazten diren araubide eta baldintzetan irakaskuntza eta ikerkuntza.

2009ko urriaren 23an Osatek, SAREN administrazio-kontseiluak sozietatearen helburua aldatu zuen eta irakaskuntza eta ikerketari bere horretan eutsiz, helburua definitzen du euskal osasun sistemari babes emateko zerbitzuen emakida edo zuzkidura modura, bereziki izaera korporatiboa duten haien edo goi mailako teknologia-prozedurak eskatzen dituzten haiena.

2010eko otsailaren 17an Osakidetzako administrazio-kontseiluak, Osatek, SAREN c denak, Sozietatearen Estatutuen 1. artikulua aldaraztea onartu zuen, EAEko Administrazio orokorraren gauzako berezko baliabide eta zerbitzu tekniko modura aitortua izateko.

2010eko abenduaren 22an Osatek, SAREN administrazio-kontseiluak berriz Sozietatearen helburua aldatzea erabaki zuen, osasun esparrua giza esparrura ere hedatzeko. Batzar Nagusiak ere aldaketa hau 2011ko urtarrilaren 10ean onartu zuen.

2016an, Osatek, SAK gizarte zerbitzuen eremuan jarraitu du lanean, erradio-diagnostiko zerbitzua emanez, Osakidetzari nagusiki, eta telelaguntza zerbitzua norbanakoei.

## Langileria-gastuak

2016ko ekitaldian, Osatek, SAREN langileria-gastuek 13 milioi euro egin dute, honako kontzeptu hauen izenean:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2016	2015
Soldatak .....	10.992	9.926
Gizarte Segurantza .....	2.059	1.950
Bestelako gizarte gastuak .....	9	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.060</b>	<b>11.885</b>

2016an % 9,8ko igoera izan dute honako hauen eraginez: % 1eko ordainsari igoera; produktibitateagatik ordainsari aldakorrek gora egitea; 2012ko abenduko aparteko ordainsaria berreskuratzeko % 25 inguruko ordainketa; erradio-diagnostiko jardueraren igoerari aurre egiteko aldi baterako kontratazioen igoera; eta 2010eko soldata murrizketagatik epaia egikaritzean atzerapenen ordainketa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2016ko ekitaldi itxieran, egiazko plantilla 176 langilekoa da; hona hemen xehakapena:

	Langile kop.				
	GOI ZUZENDARITZA	FINKOAK	MUGAGABEAK EZ FINKOAK	ALDI BATERAKOAK	GUZTIRA
Zuzendariak .....	1	-	-	-	1
Zuzendariak eta arlo-arduradunak ....	-	2	-	2	4
Langile sanitarioak .....	-	84	20	21	125
Langileria administr. eta teknikoak.....	-	27	9	10	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>113</b>	<b>29</b>	<b>33</b>	<b>176</b>

Langile mugagabe ez finkoen kopurua, 2015ean aldi baterako kontratua zutenena, 12 pertsonatan gehitu da epai judizialen ondorioz.

## Zerbitzuak emateagatiko sarrerak

Kontzeptuen araberako sarrerak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
Mediku miaketak (Erres.Magn.) / Osakidetza.....	16.081	15.461
Telelaguntza/Enplegu eta Gizarte gaietarako saila .....	8.022	7.494
Bestelako sarrerak.....	277	246
<b>GUZTIRA</b>	<b>24.380</b>	<b>23.201</b>

Osakidetzari erradio-diagnostiko zerbitzuak emateagatiko sarrerek 16,1 milioi euro egin dute, negozio zifraren zenbateko garbiaren gainean % 66 egiten dutenak. Urtero, zerbitzuen emakida baldintzak arautzen dituen hitzarmena izenpetzen da eta, besteak beste, zehazten ditu emandako zerbitzuen tarifak, aurreikusitako jarduera eta finantzaketa, zerbitzuen kartera eta emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko adierazleak.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailetik 8 milioi euro jaso dira telelaguntza zerbitzuak emateagatik, 2013ko uztailaren 29an izenpetutako kudeatzeko gomendioan aurreikusitakoaren arabera, 2016rako luzatutakoa; horiek zerbitzu emakidagatik sarrera guztien gainean % 32,9 egiten dute.

Berebat, 2016an Osakidetzatik 204.699 euro jaso dira gaixo kronikoentzat telemonitorizazio zerbitzuen kontzeptuan, 2016ko urtarrilaren 1ean izenpetutako kudeatzeko gomendioari jarraikiz, 2016ko urterako indarraldia duena eta zuzenean beste 12 hilabetez luzatzeko aukera duena.

Gainera, Osasun Sailari erradio-diagnostiko zerbitzua emateagatik 38.447 euro jaso dira kontratu-programa baten bitartez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 19. artikuluari jarraikiz eta besteak beste, jasotzen ditu aplikatu beharreko tarifak, jarduera, eskatutako kalitatea eta beharrezkoa den finantzaketa.

## Kudeaketa mandatuak

Osakidetzarekin 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden mandatuak honako hauek dira:

- Osateken 2011ko ekainaren 9ko administrazio-kontratazioko kudeaketa mandatua, kontratazio espedienteak izapidetzeko, harik eta Osatekek beharrezko baliabide gizazko eta materialak ez dituen bitartean, indarraldi mugagabearekin.
- Osateki 2016ko urtarrilaren 1eko kudeaketa mandatua, tratamendu kronikoa duten gaixoekin telemonitorizazio programa bat egiteko, 2016ko urterako indarraldia duena eta zuzenean beste 12 hilabetez luzatzeko aukera duena.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailarekin indarrean da 2013ko uztailaren 29ko telelaguntzako kudeaketa mandatua, txosten hau idatzi dugun datan luzatua dagoena. 2016an lehenengo seihilekoa luzatzea zuzenean onartu zen eta bigarrena, Saileko zerbitzu zuzendariaren 2016ko ekainaren 30eko Ebazpen bitartez.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua 2016rako mandatu honentzako 7,7 milioi eurorena izan da eta 921.175 euroan gehitu da erabiltzaile kopuruak gora egin duelako (42.000, 2016ko abenduaren 31n), 8,6 milioi eurora arte.

Mandatu honek 2012an Telelaguntza zerbitzurako kontratazio espedientea ekarri zuen, zeinak “Berrikuntza Soziosanitarioa” atalean adierazten zuen plataforma hori Enplegu eta Gizarte-politika eta Osasun sailek erabili ahal izango zutela kontratuaren beraren helburuez gain, zerbitzu gehigarriak eta/edo osagarriak emateko. 2016an iraungi denean, berriz lizitatu eta esleitu da.

## Kontratazioa

2016ko ekitaldian formalizatutako 4 espediente aztertu ditugu.

FORMALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK	PROZED. (*)	Euroak milakotan		
		ZENBATEKOA 2016		AKATSA
ESPEDIENTE/DESKRIBAPEN ZK.		ESLEIT.	EXEK.	
1. EAEko Telelaguntza zerbitzua .....	A	14.322	1.345	
2. Uribeko O. Erres.Magn. ekipoak hornitzea eta egokitzapen lanak .....	A	910	910	
3. Ekipo elektronikoen aseguruua .....	PGN	49	49	
4. Azpieg., microsoft zerb. eta kudeaketa plataformaren mantentze-lanak ....	PGN	48	48	
<b>GUZTIRA</b>		<b>15.329</b>	<b>2.352</b>	

(\*) Prozedura: A: Irekia PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua



## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ETA OSATEKEN 2016 ALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINIKO ALEGAZIOAK

### I.- SARRERA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta OSATEK SA sozietatearen 2016. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziatzeko gaiaren inguruan erakunde horiek egin nahi izan dituzten eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

### II. IRITZIA

#### II.1 OSAKIDETZA

##### II.1.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki gisa izapidetu dute hainbat produkturen erosketa edo ondasun higigarriren hornidura, kontratuaren objektua zatikatuz. Era horretan, ez dituzte bete publizitatearen eta lehiaren printzipioak (SPKLTB, 86. Artikulua); hori da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Kontrol-txostenetatik ondoriozta daitekeena, kontratu mota horiek aplikatu beharreko araudira egokitzeko beharrari dagokionez. Sendagaien hornidurari dagokionez, gabezia hori 8,7 milioi euroko erosketetan hauteman da, aztertu egin diren 21,9 milioi euroen artean; % 39,9 osatzen du horrek. Gainerako hornidurei dagokionez, produktu homogeneoen 82,9 milioi euroko erosketa zatikatu da, aztertu diren 105 milioi euroei artean, hau da, erosketen % 78,9. (Ikus A.4).

### ALEGAZIOA

Alegazioa geroago ageri da, A.4 - Kontratu Txikiak atalean.

2.- Zenbait zentrotarako bi angiografo digital biplanoren hornidura eta egokitzapen-obren espedientean, 2 milioi eurotan esleitu zenean, ez da behar bezala justifikatzen kontratazio-organoari aurreikusi ezinak zitzaizkion gertaeretatik eratorritako premia larria zegoenik, haren arabera esleitu diren arren publizitaterik gabe prozedura negoziatuaren bidez. Interpretazio murriztailekoa da prozedura horren aplikazioa, eta salbuespenezkoa da kontratazio publikoaren oinarritzko irizpideen baitan (SPKLTBko 170.e artikulua) (41. espedientea).

### ALEGAZIOA

SPKLTBko 170. artikulua xedatzen du prozedura negoziatu bidez esleiri daitezkeela kasu hauetan:

e) Baldin eta kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko larrialdi batek eskatzen badu kontratua



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*lehenbailehen betetzea, 112. artikulua arautzen duen presazko tramitazioa aplikatuz lortu ezin delako.*

Aginduaren hitzetatik argi eta garbi ondoriozta daiteke negoziatutako prozedura aplikatu ahal izateko jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza bete behar direla egoera zehatz bakoitzean, metatze-efektua baitute horiek:

- Kontratazio-organoak ezin aurreikusi dezakeen gertaera batetik sortutako beharra.
- Kontratazio-organoari egotzi ezinezkoa.
- Presazko prozeduraren bitartez lortu ezinezkoa.

Aztergai dugun kasuan, kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen eta horri egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko larrialdiak izan, badira, eta honakoen ondorio izan daitezke:

- horiek konpontzeko saiakera egin arren, une zehatz eta kritiko batean funtzionamendu zuzena oztopatu duten matxurak.
- inola erabili ezinik geratu ezin ziren ekipamenduak izatea, asistentzia- zein antolamendu-jarduketan hariak dituzten ondorio larriengatik.
- administrazioaren planifikazio edo programazio faltaren ondorioz sortu ez diren egoerak izatea.

Horregatik, premia larriko prozeduraren bitartez egindako izapidetzeak legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela ebazten da, eta beraz, lehiaren printzipioak bermatzen direla hornidura mota horretan parte har dezaketen enpresa guztiei luzatutako gonbidapenaren bidez.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK**

#### **III.1 OSAKIDETZA**

##### **III.1.1 LANGILERIA-GASTUAK**

- *9 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urteko epemuga gainditu da; eta 18 espedientetan, maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko epea.*

### **ALEGAZIOA**

Horren harira, gogora ekarri behar dugu zein den aldi baterako eta bitarteko izendapenen iraupenaren arrazoa, bai eta zerbitzu-eginkizunena, aldi-baterako barne-igoerena eta abarrena ere: zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei erantzutea, eskariari egokitzen zaion kalitateko osasun-arreta bat emateko. Horrenbestez, zerbitzu horiek ematen



jarraitzeko beharrezko iraunaldia izaten dute, horretarako ezartzen diren lanpostuak araudiaren arabera betetzen diren arte, guztia indarreko legedia betez.

Edonola ere, eta zerbitzu-eginkizunen iraupenari buruzko oharrari erantzunez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurreko txosten batean esandakoa berretsi nahi dugu: osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak (Osakidetzako estatutupeko langileei zuzenean aplikatu behar zaien araudiak, alegia) zerbitzu-eginkizunak arautzen ditu 39. artikuluan, inolako epemugarik ezarri gabe. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea araudi osagarria izango litzateke berariazko araudiak xedatzen ez dituen puntuetan, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen.

Ildo horretan, epai batzuek Osakidetzaren ikuspegiarekin bat egiten dute, besteak beste, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren 90/08 Epaiak, zeinak honako hau adierazten duen:

*«Alderdi demandatzaileak alegatutakoaren kontra, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26.3 artikulua ez da aplikagarria Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoaren deialdian. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 2. artikulua Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen eskema bera erabili zuen. Hala, osasun-langileak bere aplikazio-esparrutik baztertu zituen, eta agindu horretako 3. zenbakian xedatu zuenez, aipatutako legea ezarri osasun-langileen berezitasunetara egokitzeko arau bereziak eman zitezkeen. Baina hamabigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, Gizarte Segurantzako estatutupeko langileak «apirilaren 25eko 14/1986 Legean ohartemandakoen arauera eta honetan adierazitako printzipioen esparruan, Eusko Legebiltzarraren Legez zuzenduko da. Bien bitartean, aipatu langilego hori, lege honetako II, IV, V eta VI Idazpuruetan eta bakoitzari dagokion Estatutuan dauden oinarriko erabakietan agindutakoak zuzenduko du». EFPLaren hamabigarren xedapen gehigarriak lege horretako II. tituluan agertzen den arauketara bideratzeak zuzenbide intemporal eta behin-behinekotasun kutsu nabarmena du, «legedia bereziaz» adierazitakoak barne.*

*Bada, legedia berezi hori Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea argitaratuz ezarri zen (1997ko uztailaren 21eko EHAA). Geroago, Osasun-zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legea eman da, Euskal Autonomia Erkidegoan ere aplikagarria, oinarriko legediaren parte diren alderdietan. ...»*

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek Osakidetzan zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak egiten direnean, administrazio publikoaren arteko lankidetzaren esparruan egin dira. Horretarako, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko urriaren 13ko 190/2004 dekretuak 51.1 eta 51.3 artikuluetan espresuki xedatzen duena bete da, eta kasu horiek bi urteko epemuga luzagarriarekin baimendu dira.

Laburbilduz, araudiak epemugak ezartzen dituenean, muga horiek zorrotz bete dira.

Bestalde, kontuan hartu behar da aldi baterako beteta dauden zerbitzu-eginkizunetako lanpostuak bere garaian deialdi baten xede izan direla lekualdatze-lehiaketa bidezko



mugikortasun-prozesuetan edo, kasua bada, EPE bidezkoetan, erregelamenduaren arabera hornitzeko, izaera finkoarekin.

- *Badira aldi baterako osagarriei buruzko berariazko araudiak (guardia medikoak, maila altuagoko egitekoak, txandakotasuna, gauekotasuna, jaiegunak, kokalekua, autokontzertazioa etab). Hala eta guztiz ere, ez dira beti betetzen, gehienbat benetan eman diren zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazioa falta baita eta organo eskudunek ez baitituzte onartzen.*

## ALEGAZIOA

Zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazio faltagatik eta organo eskudunek onartu ez dituztelako betetzen ez diren ordainketa-kontzeptuei dagokienez esan behar dugu jarduera hori jasotzen duen tresna Giza Baliabideen Kudeaketarako Sisteman integratuta dagoen karteldegia edo txanda-planifikatzailea dela, eta horrekin kudeatzen direla denborak.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da —hau da, programatuta dagoena—, eta, bestetik, karteldegi erreal deritzonean, benetan gauzatutako jarduera eta gainerako gertakariak (absentziak eta presentziak) jasotzen dira, nominan eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Horrela, benetan egindako jarduera beti ordaintzen da nominan.

Enplegatuaren atariko proiektuaren baitan eta bertan definitu diren izapideen eta baimenen bideari jarraituz, gaur egun lanean ari gara kudeaketa-prozesu egokia zehazteko, eta horren bidez, karteldegian jasotzen den jarduera hori identifikatzeko, nominan ordain dadin. Karteldegiak jarduera erreala jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute laguntza-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta aipatutako kudeaketa-tresna horrek denborak kudeatzeko duen sistema ere.

Adierazitakoa alde batera utzita, beste batzuetan jakinarazi dugun bezala, berretsi egiten dugu Giza Baliabideen Zuzendaritzak hainbat prozesu zehatz burutu dituela kontrol-elementuak aintzat hartuta (Ordainsariak kudeatzeko prozesu korporatiboa -nominak eta gizarte-segurantza- ISO 9001:2008 arauaren ziurtagiria).

Prozesu horren baitan hainbat adierazle definitu dira, Osakidetza osoan zein zerbitzu-erakunde bakoitzean. Adierazle horiek Zuzendaritza Nagusiak, batzordeak eta erakunde bakoitzak aztertzen ditu. Adierazleak zerbitzu-erakundeei bidaltzen zaizkie hiru hilean behin, horiek aztertzeko, arrazoitzeko eta beharrezko diren neurriak hartzeko, adierazleak zuzentzeko eta aurrerantzean halakoak saihesteko hobekuntzak ezartzeko helburuarekin. Beraz, adierazle horien azken helburua da zerbitzu-erakunde bakoitzak egiaztatzea ordainketak ondo egiten ari direla, eta benetan egindako jardueragatik ordaintzen dela.





### III.1.2 KONTRATAZIOA

- 33,2 milioi euroren truke esleitu ziren 16 espedientetan (obratakoak 2, zerbitzutakoak 5, hornidurakoak 7 eta hornidura eta obratako mistoak 2), eskaintza ekonomikoen balioespenean mugak edo atalaseak ezartzen dira, eta haietatik aurrerago beherapen gehiagorik aurkeztea sustagarririk gabe geratzen da, eskaintzarik onuragarriena aukeratu ahal izatea zailduz (36, 37, 39, 40, 41, 44, 52, 53, 54, 58, 59, 60, 64, 65, 71, 72. espedienteak).

### ALEGAZIOA

Prezio-irizpidea arrunta da lizitazio guztietan; izan ere, «eskaintza ekonomikoki onuragarriena» kontzeptutik ezin bereizi daitekeela ulertzen da.

Prezioari dagokionez, eskaintzarik baxuenari punturik gehien eman beharrean eskaintza ekonomikoen media aritmetikora gehien hurbiltzen den eskaintzari punturik gehien emango liokeen balorazio eredu bat jartzeko aukera onartzen dute hainbat administratziotako zerbitzu teknikoek. Bi noranzkoetan batez bestekotik alden du ahala, puntuazioa proportzionalki igo edo jaitsiko da alderantzizko norakoan. AKABek 8/97 txostenean adierazten du SPKLTBko 150. artikulua ez duela ezartzen baloratzeko arau zehatzik eta ostera, aipatutakoa bezalako formulak erabiltzeko aukera ematen duela pleguan berariaz jasotzen direnean formula horiek.

Prezio-irizpideari puntuazioa esleitzeko sistema proportzionalak erabili behar dira, eta haien artean atalase jakin baten azpitik eskaintzek ez dutela onura ekonomiko aipagarrikerak erakartzen irizten direnak ere bai, lizitatuzaileak lehia “irrazionaleko” egoeran aurkitzeko zorian egongo bailirateke bestela.

Valentziako Administrazio Kontratazioko Batzorde Nagusiaren 1/2001 Irizpenak, maiatzaren 21ekoak, lehiaketetan eskaintzako prezioaren balorazio-irizpideari buruzkoak, zera ondorioztatzen du: «edozein kasutan ere, eskaintza merkeenek ezin izango dute hain merkeak ez diren eskaintzek baino puntuazio baxuagorik jaso». Hala ere, jarraian onartzen denez, hainbat balorazio-teknika ezar daitezke, besteak beste, tartetean, indize zuzentzaileetan edo kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen dituen beste edozein indizetan oinarritzen direnak, betiere horien emaitza lehen baldintza denean.

Balear Uharteetako Administrazio Kontratazioko Batzorde Aholkulariak, 5/98 Txostenean, ekainaren 26koan, lehiaketak esleitzeko irizpidetzat prezioa balioesteari buruzkoan, esaten zuen “indarrean dagoen irizpidea da eskaintzarik baxuenari puntuazio hoberena ematea, zeinahi delarik hori egiteko erabiltzen den formula, ezohiko baxutasuna duten eskaintzei eman behar zaien entzute-eskubidea errespetatuz”.

Hori guztia dela eta, bide batez, ondorioztatzen da aipatu premisak bete egiten direla.

Izan ere, eraginkortasunari ez zaio prezioaren ikuspegi hutsetik begiratu behar, kalitatearen eta prezioaren arteko ikuspegitik baizik. Puntu guztiak eskaintza merkeenari ematen bazaizkio, eskaintzen arteko diferentzia modu desegokian areagotzen da proportzionaltasunaren ondorioz; beraz, sistema kutsa dezake, eta beste irizpide batzuetan lortutako puntuazioari kalte diezaioke.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Esan den moduan, irizpide objektiboek irizpide subjektiboek (kasu honetan, prezioaren) baino garrantzi handiagoa izatea saihesten du aukera horrek, eta horrela hesitzen da, aurreikus litekeen moduan, lizitatuzaileek portaera arriskutsuegiak hartzea, are beherapen handiagoak eginez eskaintza ekonomikoak (irizpide objektibo nagusia bihurtzean) puntuazio altuagoak erakarriko lituzkeelako gainerako balioespen-irizpideek baino.

Are gehiago, haren xedea da aurreikusten den haztapenaren helburuari eustea, eta bidenabar egokia da hura jasotzea osasunarena bezain sentibera den sektore batean non haztapen oker batek desitxuratu baititzake eskakizun teknikoak -normalean, prestazioa zuzen egikaritu ahal izateko funtsezkoenak izaten direnak- eta desegin baitezakete nahitaezko kalitate/prezio harremana, horrek erakar dezakeelarik lehia desitxuratzea.

- *4 milioi euroren truke esleitutako 3 espedientetan (horniduretako batean eta zerbitzuetako bitan), esleipen-irizpideen garapena, haren zenbatespena balio-epai baten mendekoa izanik, urria da Azalean zein Pleguetan (SPKLTBko 150. artikulua) (52., 62., 73. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

52, 62 eta 73 espediente horietan ezartzen diren balioespen-irizpideek argi eta garbi azaltzen dituzte puntuatu nahi diren helburu zehatzak zein diren, eta azpimarratu behar da, ezaugarri teknikoak baloratzeko erabiliko diren esleipen-irizpideak baloratzeko eta haztatze metodoak xehatuta eta zerrendatuta ematen direla, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta daudela, eta lagungarriak direla Eskaintza Onuragarrienaren deklarazioa zuhurtasunez emateko. Hautatutako irizpide bakoitzaren definizioak argi adierazten du zein den lortu nahi duen helburua. Ebaluazio kualitatiborako kontuan hartuko diren elementuak zehaztuta daude; azpi-irizpideak deskribatzen ditu eta bakoitzari nolako puntuazioa eman ahal izango zaion adierazten du (hain zuzen ere 62. espedientean). Puntuazioen progresibotasuna erabakitzen duten mekanismoak eta parametroak zein diren ezartzen du, puntuazioa iritziaren arabera izan ez dadin.

Abiapuntuko premisatzat hartuz esleipeneko irizpideak direla aintzat hartu behar diren elementuak kontratista aukeratzeko orduan, eta interes publikoa hobekien asetzen duten eskaintzak hautematera eta Kontratazio Publikoaren alorrean burutzen ditugun jarduketak hobetzera bideratzen direla, Osakidetza aspalditik ari da hori lantzen eta gaur egun modu xehatuagoan garatzen dira bai esleipen-irizpideak eta bai haien haztapena.

- *40 milioi euroren truke esleitutako 14 espedientetan (zerbitzuetakoak 4 eta horniduretakoak 10), aurreikusten diren aldaketek ez dituzte betetzen modu argi, zehatz eta zalantzagabea aurreikus litezkeenak, zehaztasunez eta egiaztagarritasun objektiboz, izateko baldintzak, muga kuantitatiboari dagozkionak ez badira (SPKLTBko 106. artikulua) (37, 38, 40, 50, 51, 52, 54, 56, 66, 67, 68, 72, 74, 77. espedienteak).*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOA

Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko.

- *968 mila euroren truke esleitutako 2 hornidura-espeditetan (obretakoa bat eta zerbitzutakoa bestea), balio-epaien araberako irizpideen balorazio-txostenak ez dira modu argudiatuan aurkeztu (SPKLTB 150 eta 151.4 artikulatuak.) (73, 75. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Osakidetzak, Kontratazio Publikoaren alorrean ditugun jarduketak hobetze aldera eta esleipenen zio diren helburuak aintzat hartuz, beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko.

- *Bestalde, KEBak egindako Kontrol Txostenen berrikuspenean, zatikapena hauteman da produktu homogeneoen erosketan, eskaintzen eskaririk gabe. Zatikapen hori 7,3 milioi euroko erosketetan hauteman da, aztertutako 71,8 milioi euroen artean; hau da, erosketen % 10,2an.*
- *Era berean, 13 zerbitzu-erakundetan kontratu txiki gisa izapidetutako inbertsioetatik -4,4 milioi euroko guztizko kostuarekin-, kontratuaren objektua zatikatu dela hauteman da erakunde horien 3 zentrotan eta 842.487 euroko zenbatekoari dagokionez. Beraz, ez dira errespetatu legeak ezartzen dituen kontratazio-prozedurak. «Erabilera klinikorako makineria» delako kontuan gertatu da kasu horien guztien % 75 (Ikus A.4).*

## ALEGAZIOA

Alegazioa jarraian ageri da, A.4 - Kontratu Txikiak atalean.



## A.4 KONTRATU TXIKIAK

### Kontratu Txikiak

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIZKO	K. TXIKI		AZTERTUA		EZ-TETZEA	
		ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%
Sendagaiak .....	280.615	21.858	% 7,8	21.858	% 100	8.739	% 39,9
Gainerako produktuak.....	287.913	114.134	% 39,6	105.019	% 92	82.909	% 78,9

Euroak, milakotan

## ALEGAZIOA

Kontratu txikien bidez erositako sendagaien kontratazioari dagokienez, Auzitegiaren txostenean azaltzen den moduan, bilakaera positiboa nabarmendu behar da kontratu txikien zenbatekoa murriztu egin delako: 2012ko 72,1 milioi eurotatik 2016ko 21,9 milioi eurotara.

Horren harira, aldez aurreko ohartarazpen hauek egin behar dira:

KEBak 21.858 mila euro aztertu ditu, zuzeneko eskaeratzat jotzen dituenak. Txostenaren arabera, zenbateko horren 2.303 mila eurok lege-babesa dute kontratua indarrean egoteagatik; ondorioz, legeak babesten dituen eskaerak lirakeke, Osakidetzaren eta esleipendun laborategiaren artean indarrean dagoen kontratu baten bidez. Kontratuz kanpoko gisa oker egotzitakoak dira, kontratua egon, badagoen arren. Horiek ez ziren kontuan hartu behar, eta ez lirakeke kontratu txiki gisa izapidetutzat jo beharko. Hori % 11 da, 21.858 euroko zenbatekoari dagokionez.

Diferentzia hori kontuan izanda, 19.555 mila eurotik abiatuta egin beharko litzateke azterketa (21.858-2.914); hau da, 24.000 eurotik gorako (KEBak zifra horretatik aurrerakoak jotzen baititu intzidentziatzat) erosketa-maila izan duten espezialitate farmazeutikoen azterketa zenbateko txikiago batetik abiatuta egin beharko litzateke. Azken finean, 8.739 mila euroko zifra nabarmen handiagoa da benetakoa baino (nahiz eta ezin daitekeen erabat zehaztu, esan liteke, proportzioan, 19.555 eurotik abiatuz gero, 7.818 euroko zifra aterako litzatekeela). I. eranskinean 2.303 mila euroko guztizko balioa duten eskaeren zerrenda jasotzen da; Aldabide-SAPen garapen informatiko baten bidez erauzi dira horiek, kasuistika detektatu ahal izateko.

Espezialitate farmazeutikoko zenbatekoa 24.000tik gorakoa duten 8.739 mila euroko guztizkotik % 58,29 merkaturatze eskusiboko sendagaien edota biologikoak eta ez kimikoak diren sendagaien erosketari dagokio.

Esklusibotasunak esan nahi du sendagai batek hornitzaile bakarra duela eta, beraz, sendagaiak patologia jakin bat tratatzen duen hornitzaile bakar horri eskatu zaizkiola; halakoetan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu behar dugu halako kasuetan hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaiaren prezioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen duela. Gogoan izan behar dugu Espainian sendagaien prezioak ez direla askeak eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagaiei buruzko onlineko informazio-zentroa (CIMA) du bere webgunean. Horretan,



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

sendagai bakoitzaren titularrak nor diren zehazten da, eta, beraz, azalpen hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiazta daiteke

(<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>).

Best alde, sendagaiak biologikoak eta ez kimikoak izateak konplexutasun handiagoa dakar bai sendagaiok erabiltzean bai haien jarraipena egitean, eta horrek espedientearen izapidetzea baldintzatzen du. AEMPSEk berak ere sendagai horiek ordezkaezinak direla ezartzen du eta, 2009-04-24ko oharrean (II. Eranskinean dago erantsita) adierazten du ezen, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo direla ordeztu sendagaia emateko momentuan sendagaia agindu duen medikuak berariaz baimenik ematen ez badu. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela-eta, sendagai biologikoak komertzializatzeko baimena EMAk, Europako osasun-agentziak, bakarrik eman dezake, eta ez agentzia nazionalek.

III. eranskin atxikian, sailkapen horren araberrako sendagaien zerrenda azaltzen da eta, adibide gisa, hornitzaile bakarra duen sendagai baten egiaztagiri bat ere azaltzen da, CIMAtik aterata (Carbaglu da azido karglumikoa printzipio aktiboa duen sendagai bakarra).

Txostenean aipatzen diren farmako ia guztiak ospitalean erabiltzekoak dira; hau da, konplexutasun tekniko handiko sendagaiak dira eta patologia larrietarako, patologia ezgaitzaileetarako, diagnostikatzen oso zailak diren patologietarako, asistentzia-eskaria aurrez zehaztea ezinezkoa den patologietarako dira aproposak eta pazienteentzako eta gero kontsumitzeko aproposak. Orobat, oso garestiak dira.

Zerbitzu-erakundeek egiten duten erosketen kudeaketaren helburua asistentzia-premiak berehala asetzea da. Sendagaiak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espediente prestatu eta lizitazioa egin bitartean; izan ere, konplexutasun tekniko handiko prozedurak dira eta espezifikotasun zehatzak dituzten merkatu farmazeutikoko kanpo-elementuen eraginpean daude. Konplexutasun horri erantsi behar diogu sendagaiak, oro har, hainbat modu farmazeutiko edo galenikotan eman ohi direla (konprimatuak, kapsulak, disoluzioan, injektagarriak, etab.); sendagaien dosifikazioa, eszipientea, iraungitze-data eta egonkortasuna ez dela guztietan berbera eta erabiltzeko baldintza eta modu desberdinak daudela. Bestalde, hornitzaileek hainbat baldintza logistiko eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu behar izaten da.

Teknikariek egiten duten alde aurretiko azterketa hori guztia konplexua da eta lan handia eskatzen du eta luze jotzen du izapidetzeko. Denbora hori kontratazio-espedientearen barruan kontatzen da, baina ez du eraginik kontratu txikiko erosketak murrizteko.

Ondorioz, kalitateko osasun-asistentzia bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da espedienteak hasi aurretik egin beharko diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehaztu ahal izateko.

Atal honetan Osakidetzak sendagaien kontratazioan egiten duen ahalegin handia nabarmendu behar da; hala, aurrekontuen egonkortasunarekin eta gastuen kontrolarekin lotutako helburuaren arabera, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen da, baita

erosketa integratuaren hobekuntza etengabea ere, teknikarekin eta prezioarekin zerikusia duten baldintza hoberenak lortzeko tresna gisa.

Hurrengo laukian Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren intzidentziak laburtzen dira, baita farmaziako urteko gastuarekin duten erlazioa ere, ehunekoetan; hala, aipatutako esfortzua ikus daiteke, kontratazioaren bilakaera positiboa baita. Nabarmendu behar da 2016. urtean zehar intzidentziak % 3 besterik ez zirela izan sendagaien guztizko gastuari dagokionez.

Urtea	Farmaziako gastua		Kontrol Ekonomikoko Bulegoak hautemandako intzidentzia	
	EUROS	Ald. %	EUROS	Intzidentzien %, farmazia-gastuari dagokionez
2012	215.936	% 10	53.348	% 25
2013	227.526	% 5	38.309	% 17
2014	227.618	% 0	14.969	% 7
2015	266.442	% 17	10.399	% 4
2016	280.615	% 5	8.739	% 3

(milaka eurotan)

Aurretik aipatutako ohartarazpenak kontuan hartuz, Osakidetzak alegazio hauek egiten ditu:

Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 8.739 mila euroetatik, gutxienez 868 mila euro (% 10) eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen kontratu baten babesean dagoen kodea duten sendagaiari dagozkie. Ondorengo agiriak frogagiri gisa erabil daitezke:

IV. eranskina (sendagaien zerrenda, Aldabide-SAP esparru-kontratuaren zenbakia eta kontratuaren hasiera- eta amaiera-data).

Espedienteen eta Osakidetzak eta hornitzaileek sinatutako kontratuen agiriak eskuragarri daude Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian.

Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 8.739 mila euroetatik, 30,27 mila euro Barakaldo-Sestao ESIri esleitu zaizkio Harvoni (704630) espezialitateagatik, kontratuz kanpoko eskaerarik ez dagoenean espezialitate horretarako, zenbateko horrekin eta erakunde horretarako. Frogatzat balio beza ondorengo laukiak non agertzen baita espezialitate horretarako eskaera bakarra, 24.000 euroko zenbatekora iristen ez dena eta Barakaldo-Sestao ESIari ez dagokiona:

Erosketa-agiria	Materiala	Testu laburra	Erosketa-antolakundea	Dokumentuaren data	Eskaeraren kantitatea	Eskaeraren neurri-unitatea	Eskaeraren balio garbia
4505730653	704630	HARVONI 90/400 MG KONP ESTAL C/28	O321	2016/03/11	2	KI	20.177,94



Ezezaguna da kalkulu-akats horren munta eta 8.739 mila euroko zenbateko globalean horrek duen eragina.

Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 8.739 mila euroetatik, 39,97 mila euro Bidasoako ESiri esleitu zaizkio Prolastina (656186) espezialitateagatik, benetako zenbatekoa 36,93 denean. Frogatzat balio beza ondorengo laukiak, espezialitate horretarako eta erakunde horretarako kontratuz kanpoko eskaerak azaltzen dituenak:

Erosketa-agiria	Materiala	Testu laburra	Erosketa-antolakundea	Dokumentuaren data	Eskatutako kopurua	Eskaeraren neurri-unitatea	Eskaeraren balio garbia
4505689127	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/02/08	13	UND	3.033,29
4505694269	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/02/11	6	UND	1.399,98
4505840695	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/06/16	6	UND	1.399,98
4505856469	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/06/30	19	UND	4.433,27
4505872563	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/07/14	6	UND	1.399,98
4505882409	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/07/26	13	UND	3.033,29
4505885309	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/07/28	6	UND	1.399,98
4505898915	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/08/11	6	UND	1.399,98
4505900091	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/08/12	13	UND	3.033,29
4505957948	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/10/11	13	UND	3.279,25
4505961806	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/10/14	13	UND	3.279,25
4505987150	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/11/07	13	UND	3.279,25
4506012328	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/11/28	13	UND	3.279,25
4506034847	656186	PROLASTINA 1 G 1 BIAL 40 ML	O321	2016/12/19	13	UND	3.279,25
							36.929,29

Ezezaguna da kalkulu-akats horren munta eta 8.739 mila euroko zenbateko globalean horrek duen eragina.

- *Beste produktu batzuei dagokienez, hautemandako 82,9 milioi euroetatik, ez da publizitate- eta lehia-irizpidea errespetatu 72,9 milioi euroko erosketetan, eta lehiari dagokionez, hori ez da errespetatu 10 milioi euroko erosketetan.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Era berean, 13 zerbitzu-erakundetan kontratu txiki gisa izapidetutako 4,4 miloi euroko inbertsioen erosketa aztertu da. Aztertutako ibilgetuen kontuetan erregistratutako alden % 9,06 osatzen dute gutxi gorabehera. Egindako lanetik ondorioztatzen da kontratuaren objektua zatikatu dela, eta kontratu txikien % 19,1ak lehiaren printzipioa alde batera utzi duela. Kontratuok zerbitzu-erakundeen 3 zentrori dagozkie eta 842.487 euroko zenbatekoa dute. Horietako % 75 «Erabilera klinikoko makineria» kontuan gertatu da.

## ALEGAZIOA

Hala, adibidez, erosketa zentralizatuari dagokionez, 2016ean zazpi espediente esleitu dira (21.122.429 euro); horietako hiru Administrazio Kontseiluaren Akordioan lehenbiziko aldiz sartutako produktuei dagozkie. Akordio horren bidez, inbertsio estrategikoak eta ondasunen eta zerbitzuen erosketak, kontratazio zentralizatutakoak, eta erosketa integratuen programa zehazten dira, 5.601.897 euroko zenbatekoz.

